

MUSIKA

Manipulazio isilak



OIER ARANTZABAL

JOXI UBEDA GOIKOETXEA


Lan bikaina egin du Pettik, orain arte egin duen diskorik biribilena, osoena, berak ere hala onartu du. Bai musikaren aldetik, doinuak, musika tresnen erabilera, moldaketak eta ekoizpena, bai hitzen eta mezuen aldetik.

Doinua, poesia eta pentsamendua batzen ditu diskoak. Berez, Pettiren eta Harkaitz Cano idazlearen arteko proiektua da, Harkaitz Canok sortu baititu abestien hitzak, Noam Chomsky hizkuntzalari, filosofo, politologo eta ekintzaile estatubatuarren *Manipulazio media-tikoaren 10 estrategiak* lanean oinarrituta. Komunikabideek gizartea manipulatzeke erabiltzen dituzten estrategiak identifikatu zituen Noam Chomskyk, eta gogoeta horietan oinarrituta osatu dituzte abestiak Pettik eta Harkaitz Canok.

Horrela, estrategia bakoitzari dagokion abesti bana sortu dute. Nahi gabe izan bada ere, bizi garen alarma eta larrialdi egoerarekin eta jasan dugun itxialdiarekin batera argitaratu da lana, kasualitate, baina garaiarekin bat dator erabat.

Petti musikari aparta da, bere nortasuna eta indarra nabarmenak dira, baina disko honetako abestietan aurreko diskoetakoetan baino leunago aritu da, finago, bai ahotsarekin bai gitarrarekin. Kantak oro har lasaiak dira, besteak beste, rock, folk, blues eta bossa nova kutsuak dituztenak, akustikoak gehienak, melodia ederrez eta xehetasunez ederki jantziak.

Horretarako, musikari bikain ugariarekin aritu da grabazio saioetan: Joseba Irazoki (gitarra), Igor Telletxea (bate-



MANIPULAZIO ESTRATEGIAK PETTI

ZART, 2020

ria), Iñigo Telletxea (baxua), Toño Muro (gitarra), Maite Larburu (ahotsa), Gorka Benitez (saxoa), Raul Gartzia (zerra musikala), Angel Unzu (gitarra eta hari konponketak), Et Incarnatus hari laukotea, Juantxo Zeberio (pianoa, teklatuak eta hari konponketak), Migel Zeberio (orkestra zuzendaria), eta Iñigo Irazoki eta Karlos Osinaga soinu teknikariak.

Ibilbide handia egiten ari da Petti. Jadanik hamahiru disko kaleratu ditu, Anari, Txuma Murugarren eta Rafa Rueda, Barrence Whitfield edota Xabi Señor Norekin batera egindako lanak eta jendaurreko emanaldietan grabatutakoak kontuan izanik, eta oraingoz *Manipulazio estrategiak* da bere gailurra. Diskoa Zart kolektiboaren webgunearen bidez eska daiteke (www.zart.eus). ●